D.a 3.a de Cuaresma. —— Vel D.a in albis.

Et fiunt novissima hominis illius peiora prioribus. Mat 12 C.

Dorigaitzecoa da gustiz, N.F. pecatuan viurtcen dan anima baten estaduba, baterere confesioanen videz lenago parcatu jacon becatu mortal genero aietara viurtcen bada. Cegaitic Testuac esatendigunez, guizonagandic atera izan zan Demonioac, billatcen ditu bertatic, bera baño gaistoago diran zazpi lagun; ta berriro bere viotzean sarturic, eguiten da bera jabe. Azqueneco circunstancia onec icaratu bear gau N.C. bada onec esan eraguin eutzan gure Erredemptoreari, guizon onen azqueneco estaduba, aurrenecoa baño ere gaistoagoa dala. Au berau guertatcen jaco; lelengo becatuetan jausten dan Christauari, ta Evangelioco guizon triste ta leguez, len egoan baño, estadu arcoz negargarriagoan gelditcen da; cegaitic modu onetan confesatu ondoan, lengo becatuetan jausten dira nen artean, chit guchi bear leguez viurtcen dira Jaincoagana. Ta itanguetan badeustazube, nola izan alditequean gauza ain izugarria, baita ere ain necosoa, lengo pecatuetan jausten dan persona bat Jaincoagana bear leguez viurtcea? Entzun eguizube atencio gustiaz bein jausi, bein jagui; bein garritu ta loitu; confesatu, ta berriz becatuban jausten zaren gustiocta. Dist bada lengo becatuan jausteac beragaz dacarrela gure condenacioco señale bat, ta pecatu berri au chit guchitan barcatcen dala. Cegaitic becatu modu onec eztauco esnuanic bate re, ta beragaz dacar desgraciaric andienac; Lelengo;

eztauco escusaric batere onelaco pecatariac, cegaitic bere pecatua, ezta, ez argaltasunez eguindaco pecatua, ezta ez jaquinecoa, ta bat batetan, edo ichu ichuban eguindaco becatuba; Contrara; da ezquer gaitzcoena, ta gorrotagarriena, desleieltasunic ichuriena, ta despre ciozic garbiena. Bigarrena; becatu onec beragaz dacar mise riaric andienac, bada paratcen dan guizona sosegus becatuan, nun artcen dan gueienian eriotzac, ta condenatcen da. Errazoe bi oneic izango dira, gaur adietan emongo deutzubedanac: Au da, pecatu guztien artean escusaric guchiena merecidavena, ta desgraciaric andienac beragaz dacarrena dala, lenagoco confesioetan parcatu sarren becatuan jaustea. Ce eguia au, N.F. gure lenagoco pauso oquerrac zucendu, ta guztia santu eguinda, aurrera vicitceco.

Nola dan Criatura baten lenengo obligacioa, bere Criado reari graciac emotea, eguin deutzan mesede guztiacgaiti, ala da becatuaric billauena esquergaistotasuna, ta esquergaistoaz mese de oni erantzutea. Bada baldin dempora santu onetan con fesioaren videz parcatuac gueldituezquero zuben becatuac, jausten bazare aurreneco becatuetan, viuitcen bazare lengo pasoetara, ez bacarric zare esquergaistocoac, ezpada zuben esquergaistotasuna da pensa ditequean baltzena, ta gorrotogarrie na. Eguiaz, cembat eta andiagoa dan confesioaren videz artu dozuben mesedea, ta ordubanda gorrotogarriagoa mese de au aaztu eraguiten deutzuben esquergaistotasuna; Ce mese de ta gracia andiagoric, zuben becatuben parcacioa baño? Acorda zaitece, gracia onen videz urten dozuben lenagoco estadu mirerableagaz. Zubec ciñien Demonioaren Semeac, Jaincoaren Etsaiac, Antichristoaren miembro edo Zatiac, etceunqueen parteric Jeruztoren esperanzan, juzgatuac ciñgocen ya, ta jaquina egoan ia zuben eternidade bateco

condenacioa: Pensa diteque estadu negargarriago bat? Ta con fesioaren videz eguin zare Jaincoaren Semeac, Ceruco erreinuaren heredeaoac, Jesucristoren miembroac; zuben anima graciaz apaindunic, eguinda espiritu Santuaren atzeden lecu, artu dozube Caridadea, munduco gauza guztiac baño gueiago valio daven Ceruco doi au; doi bat, cein euqui ezqueroz, ditu zube beste doi guztiac. Pensa diteque mesede andiagoric? Cein emon gueiguio Jaincoari mesede onegaitic bear jaco ezquerrac, gure vici guztian beste lanic ezpaguendo eta. Ceruco Santuac eternidade guztia laburra ezeritico jate, mese de onen ezquerrac emoteco. Ta ala ere zubec N.C. orta artu izan oy dozube mesede andi au, nun bestatic aguertcen dozuben ezqueagaitia, viurtcen zarela, confesatu orduco, lengo pausoetara, ta lengo becatuetara. Acordazaitecee orain dic nola, ta ce dempozatan eguin eutzuben Jaincoac mesede andi ori; ce peligrubar arquitcen cinan, becataria, aurrerene co gracia Jaincoac bialdu eutzunean? Gaistaqueria, ta peca tuetan guztiz ondatunic, zure conciencia ondoitunic, ta guz tiz gogortceco peligrubar arquitcen cinan demporan, afaco modurz ece Jaincoac deitu ezpaleutzu orduban, galduba cinan erremedio gabe. Ta ce dempora artu eben Jaincoac, gracia au zuri emoteco? Bian bada pecatu eguiten ari cinan dempora artan bertan; bai, erruquitu zan Jaincoa zugaz, bere contra ari cinan, ta gorputz ta anima infer nura jausi bear cinan instante zorigaistoco artan. Eztautzu bet gogora ecarri gura, ceir andiac cinan Jaincoac parca tu eutzuben becatuac; ce ichuriac ta itsalac etceuben eroan penitenciaco Sacramentura? Zubec lotzatcen cinien, ta emengo ceuben asco gauza ez manifestetiagaitic. Zuben unte, zuben eguin, zuben instante bacoitzac dempora artan becatua baño ez euben icusten, ta ala ere eztautzube

Jaincoac contatcen becatu orreic. Bere beguien aurrean, milla urte egun bat leguez dira, Profetae dioanez, ta zubec eguindaco millo: becatuac bere aurrean izan dira instante batean parcatu deutzuben becatu bat becelasse: instante artan desaguertu ciran zuben pecatu guztiac, borratu ciran illen libruratic, ta artu zan guztiaguin Jaunaren ontasuna. Cembat eta queiago ciran zubei parcatutaco becatuac, ala andiagoa izan bear ceben esquer ona, ta becatu oiec escusatceco Cuidaduba; Ta ala ere sosegu jauten zare Izengo becatu oietan; Centara zoaz, becatari tristea? Berriz becatu eguin gura dozu? Guztiz gorrotogarria da zure esquergaistotasuna. Bai, zu gura dituzu virtu moduren batean leenagoco becatu guztiac; becatu berri onen videz ondo eguintzat ematen dituzu lenago eguinico becatu guztiac. eztot esan gura, N.C. bein ondo parcatuzica becatuen contua escatuco deutzubela Jaincoac; ala ere ain andia da berriz eguiten dozuben becatuba, ece pecatu onen videz moduren batean faltatcen deutzazube Jaincoari aguindu ceutcen leialtasunean, Altare santu, ta Ceruco Aingueru guztien aurrean emonico verban, faltatcen dau Jeruxtoren icenean bere ministroen escuetan eguindaco juramentu, promesa, ta aguintze guztietan; Ah! N.C. zuben aguintce ta negarren testigu izan diran Eliza santa onen arriac alzatuco dira zuben contra Jaincoaren aurrean, dio Profeta batec; zuben juramentu, zuben suspirio, zuben maldadien gordezalle diran confesonario sagraduac aguertuco dira egunen baten mundu guztien aurrean. Ordubean eraguertuco dira leialtasunezco aguintzac, ta zeubec emonico verbac condenatuco zaube. Baña esquergaistotasunaz gañera eguiten dozube oraindic desprecioric andiena; Eguiaz zubec viurtcen zare Demonioen aldera, gustatu ta examinatu ezquero Jeruxtoren serbicioan dagocen probechuac, bardindu

ezquero bataren gloria bestiaren afrentiaz. Daucazute alde batetic
ceruba, bestetic munduba, alde batian maldadeac, bestian justicia,
gorputzaren atseguintasunac alde batetic, bestetia graciarenac,
alde batetic Jesucristo, bestetic Demonioa; ta zubec becatuan berriz
jausten zaren bacochian guraago dozube Demonioa, Jesucristo baño;
esaten dozube, becatuan jausteaz bacarric Demonioa dala Jaincoa
baño andiagoa, Jaincoa baño maitagarriagoa, Demonioac merecí
davela, Jaincoac baño obeto servitua izatia; oh! ce desprecio au
zure Jaincoentzat! onetaraco etzan obeto izango zuentzat, iñoiz
ere Jaincoagaz baqueric ez eguitea, iñoiz ere ez confesatcea?
Desprecio ichuri onec beragaz daucan gauzaric gaiztoena da chit
guchitan parcatua izatea, bada da Jaincoaren contra eguin ditequean
burlaric andiena. Eguiaz N.J. pecatuaz damutu ta berriz beca
tuan jausi, etorri confesinariora animac garbitcera, ta oraindic
berriz loitu; gaur altzatu, biar jausi; au da N.C. penitencia eguitea
edo Jaincoagaz burlatcea? onelaco desprecioac atzeratu ta apart
cenditu Jaincoaren misericordiac. Eguia da jausi daitequeala guizona
lengo pecatuan, bean leguez confesatu, ta Jaincoagana viurtu ezque
ro ere, cegaitic Penitenciaco Sacramentuac ez deusun sustraitic
quentcen gure argaltasuna, bere gan ipinten ere, pecaturic ecin
eguin daiquegun estadu batean. Baña confesatu, ta lengo ocasioan
jausi; confesatu, ta lengo ocasio gaiztoetan sartu; confesatu, ta
leenagoco costumbre dongai jarraitu; confesatu, ta len leguez
tratu gaiztoac ta faltiaz beteac jarraitu; au da N.C. ecin com
prenditu daiquedan gauza; obeto esango dot, ecin sinistu dot,
onelacoac ondo confesatcen direala. Orain bada; cembec ce juicio
eguiten dozube cembat confesioaguira? Confesioaren ondoren
escusatu dituzue cembat juramentu, cembat virao, ta maldicioac?
Confesean ta guero escusatu dituzube oraindiño euqui dituzuben
Conversacio alegueac, animac iltcen dituben izqueta loi oriec?

confesatu, ta guero ichi dituzube araco peligruz beteriko dantzac, lasunzetai, uurac beteric tratu dongai? Confesioaren ondoren escusatu dituba zuben ondiguetac, zuben murmuracioac, ta Caridadiaren contraco converzacioac? Confesioaren videz eracusten dozube modestia, ta errespeto gueiago ceuben arpegui, ceuben ibillera, ta ceuben eguiten [illegible] guztietan? Confesatu ta guero; ce vide artzen dituzube leenagoco pecatuac ecusatceco? Mortificacio, baru, ta penitenciaco gauzaric eztozube eraguitceri ere; desapreciatcen dituzube erretiro, oracion, piedade ta devocioco gauza guztiac; ta ezta au penitente izan beárrean, pecataria izatea? ezmitzateque atrevituco esatera zubei N.C. leenagotic esan ezpaleube Guraco Santuac. Bay; Santuac, penitente genero onei, beti beguiratu deuste Seruztaren gorputza oinazpiratu euben Judegu ta Herejiai leguez. Ala lengo Cristauben artean, pecatu bategaitic penitencia aguirian eguiten eubenai, penitenciaren ondoren barriz pecatuan jausten baziran, ezjaten permititcen elizan sartcea ere, ezeuqueen licenciaric artceco Sacramentu Santuac, ta penitenteen artean ere ezjaten lecuric emoten, ceagaitic sinistcen euben urrengo, cristaubac, onelaco penitenteac zirala penitente guzurti batzuc, azaleco penitente batzuc. Ah! Cristaubac! gogortasun andi onegaz vaaiatcen zan Eliza Ama Santa leenagoco demporetan. Pensa eguizube orain espacioz, ce penitencia merezi dozuben, ez bein bacarric, ezpada ain sarri pecatuan jausten zaren guztioc. Pensa eguizube espacioz, pecatua ain ichuria dala presentian, nola leenagoco Cristauben artean, Jaungoico ofendituba bera bera, ta lengo pecatariac oraingoac diran angalac. Pensa eguizube espacioz, cein erracoiaren contraroac izan ziran sentimentu, ta queja guztiac, verba eguitean confesoreanen contra, demporalabur baten ucatu deutzubelaco absolucioa, prueba eguin

anteraño, aimberte jauste ichurisco aitic. Pena equizube arguenic, absolucioanen ondoren gueldituzanela oraindic len becin pecatariac. Baña cendiot nic? len becin pecatariac? Ah! oraingüinoco confesiootan damutasunaren faltaz parcatu gabe gueldituzinan pecatuaz gañera; Cembat sacrilegio eztituzube gueitu? Cembat aldiz Confesoreac araguizco begüiac daucalaco, zuben barruba ondo ezagutu gabe, emon badeutzube ere absolucioa, emondau Jesusotoc zuben contra eternidade bateco condenacioco Sentencia? Cembat aldiz allegatu zare Altare santu orietara Judas faltsoaren arnubaz guzurresco laztan bat Jesustori emotera? Cembat aldiz confesatu ta comulgatu arren, sartcen zare lenagoco ocasio gaiztoetan, billatcen dozubela aimberte pecatu eguin eraguin deutzuben Lorigaistoco persona ha, lengo tratu gaistoa? Beraz esango deustazube, ezquebon, Jauna, iñoiz confesatu ta comulgatu bear? Errazoe andia daucazube N.C. arcoz obeto izango zan, iñoiz ere ez confesatu ta ez comulgatu, ece ez confesio ta comunioen ondoren lengo pecatuetan modu orretan jaustea. Au onela izanic N.C. oraindic ere vici zare modu onetan? Ea bada erruquitu zaitece zuben animaquin. Aprobecha zaitece Jaincoaren misericordiac emoten deutzuben graciaz, baña aprobecha zaitece berriz galduco eztozuben moduban, ta argaltasunac icaratcen barauebe [illegible] Jaun divinoen oñetara firmetasuna escatcera, esaten deutzazula: Onere Jaungoicoa! Esanguetandogu, oraingüiño vici gariala, Infernura milla bider jausteco peligrurie andierian, ta oraingüiño jauri ezpagara, zure ontasunari ezquerrac. Ezaguera onegaz, ta gure oraingüinoco jauste ichuri guztien eguiazco damutasun bategaz, zugana biurtcen gara, Aitaric maite ta biguñena leguez emon deiguzu mundu onetan gracia eta guero Ceruco gloria. Amen.

MAN 682

FUNDACION
SANCHO EL SABIO
FUNDAZIOA